



Euskal literaturaren itzulpena

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publiko bat da. Gure helburua da nazioartean euskara eta euskal kultura eta sorkuntza sustatu eta ezagutzera ematea, eta hauen bidez, beste herrialde eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea.

Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatu, eta sortzaile, artista eta kultur eta sektoreetako profesionalen mugikortasuna bultzatzen dugu, baita euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragileekin elkarlana sustatzen dugu eremu kultural eta akademikoan. Horretan guztiz estuki lan egiten du Euskadiren kanpo ordezkartzeekin.

Helbidea:

Andre zigarrogileen plaza, 1 Tabakalera eraikina

20012 Donostia / San Sebastián

T. +34 943 023 400

www.etxepare.eus

Euskal literaturaren itzulpenak sustatzen

Etxepare Euskal Institutuaren lan-ildo nagusietako bat euskal literatura nazioartean sustatzea da. Dirulaguntza hauen bidez euskal literaturaren itzulpena sustatzen da euskal idazleak eta hauen lanak nazioarteko merkatuan zabaltzen laguntzeko.

Alde batetik, euskaraz idatzitako edo Euskal Autonomia Erkidegoko idazleek sortutako literatura-lanen itzulpen eta sustapen gastuak laguntzen dira diruz. Bestetik, euskaraz idatzitako literatura-lanen laginen itzulpenak.

Literatura-lanak

- Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-lanak edozein hizkuntzataraz itzultzea laguntzen da diruz.
- Jatorriz gaztelaniaz idatzitako lanen itzulpenak ere laguntzen dira, betiere idazlea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta bada eta xede hizkuntza euskara ez den beste edozein hizkuntza bada.
- Dirulaguntzak lehiaketa bitartez esleitzen dira eta eskaera guztiak sektoreko profesionalen osaturik balorazio batzorde batek aztertzen ditu. Itzulpen, edizio eta sustapen gastuak laguntzen dira diruz.

Literatura-lanen laginak

- Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-lanen laginak ingelesera edo frantsesera itzultzea laguntzen da diruz.
- Laginak ez dira izango liburuaren %15 baino luzeagoak.
- Egileak gutxienez bi lan izan beharko ditu argitaratuta, eta horietako bat gutxienez gaztelaniara itzulita.
- Dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia bidez, osatuzat jotako hurrenkeran, esleitzen dira zuzkidura amaitu arte.

Nork eska ditzake dirulaguntzak?

Dirulaguntzak argitaletxe, agente eta itzultzaile profesionalen daude zuzenduta. Bere lanbide edo xedeen artean argitalpen- eta itzulpen-lanak dituzten munduko edozein herrialdeko pertsona fisiko eta juridikoek eska ditzakete.

Eskaera epea

Dirulaguntzak eskatzeko epea urteko bigarren hiruhilekoan ireki ohi da. Literatura-lanen itzulpenak egiteko eskaerak elektronikoki, www.euskadi.eus webgunean, edo aurrez aurre, Etxepare Euskal Institutuan edo Zuzenean zerbitzuaren bidez, egin daitezke.

Laginen itzulpenak egiteko eskaerak berriz posta elektronikoz bidali behar dira etxepare@etxepare.eus helbidera.

Informazio gehiago

Dirulaguntzen eskaera epe zehatza, beste data garrantzitsu batzuk, eta argibide guztiak www.etxepare.eus webgunean aurki ditzakezu.

Euskal kulturari buruz gehiago jakin nahi izanez gero

www.basqueculture.eus/en/